La Asamblea General podrá aprobar un Reglamento de Régimen Interior, como desarrollo de los presentes Estatutos, que no alterará, en ningún caso, las prescripciones contenidas en los mismos.


*AS/6/18918/2014*

Estatutu hauek ikus-onetsi dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteon Erroldal Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztillaren 29ko 145/2008 Dekretuan eta horrekin bat datozen gainontzeko arauetan zehaztutako ondorioetarako

2015 AZA: 19

Visados los presentes Estatutos, a los efectos determinados en el Decreto 145/2008, de 29 de Julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco y demás normativa concordante.

ELKARTEEN ERREGISTROA/ REGISTRO DE ASOCIACIONES



*R. Larena*


*[Signature]*

1. The first part of the document discusses the importance of maintaining accurate records of all transactions and activities. It emphasizes the need for transparency and accountability in financial reporting.

2. The second part of the document outlines the various methods and techniques used to collect and analyze data. It includes a detailed description of the experimental procedures and the statistical analysis performed.

3. The final part of the document provides a summary of the findings and conclusions. It highlights the key results and discusses their implications for future research and practice.





## ESTATUTOAK

### I. KAPITULUA

#### ARAU OROKORRAK

##### 1. artikulua. Izena eta lege araubidea

Irabazi-asmorik gabeko PRESTAZIO EKONOMIKOEN ELKARTEA -ASOCIACIÓN DE PRESTACIONES ECONÓMICAS (PRESTAGI) izeneko elkarteak eratu da, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritik.

Elkarteak arau hauen mende egongo da: aipatutako elkartei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), federazioaren gobernu-organoei behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurjaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

##### 2. artikulua. Helburua.

1. Elkarte honen xedea da bazkideei eta onuradunei prestazioak ematea, optika, audiofonia, ortopedia, odontologia gaietarako laguntza gisa, eta batzar orokorrak prestazioen araudiaren bitartez erabakitzen dituen beste prestazioak ematea.


Prestazioak emango dira zuhertasun eta objektibotasun irizpideen arabera, elkartearen iraungarritasun ekonomikoa auzitan egon ez dadin.

2. Prestazioak jasotzen hasi ahal izateko, bazkide berriek bederlatzi hilabeteko gabezi aldi bat izango dute, elkartean sartzen direnez geroztik. Nolanahi ere, lanpostuaren erreserba dagoen eszedentzien kasuan, eta eszedentzia hartzen duen langileak bazkide baldin bada une horretan, lanpostura berriro itzultzen denean bazkide izaten jarraitu nahi badu, ez zaio gabezi aldi hori aplikatuko.

3. Helburu horiek lortzeko, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren, elkarteak jardura hauek egin ahal izango ditu:

## PRESTAGI

Prestazio Ekonomikoen Elkartea  
Asociación de Prestaciones Económicas

- 
- a) Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko jarduera ekonomikoak gauzatu.
  - b) Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
  - c) Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

### 3. artikulua. Egoitza soziala.

Elkartearen egoitza egongo da Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, Gipuzkoa plaza z.g., 20004 Donostia.

Egoitza aldatu ahal izango da batzar orokorrak hala erabakita.

### 4. artikulua. Lurralde eremua.

Bere eginkizunak Gipuzkoako Lurralde Historikoan garatuko ditu.

### 5. artikulua. Iraupena eta izaera demokratikoa.

Elkarteak izaera iraunkorra izango du, eta batzar orokor bereziaren erabaki bidez baino ezingo da desegin, IV. kapituluan esaten den bezala, edo legeetan jasotako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

## II. KAPITULUA

### AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

### 6. artikulua. Aginte- eta administrazio-organoak.

Elkartearen agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

1. Bazkideen batzar orokorra izango da organo gorena.
2. Zuzendaritza batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organo iraunkorra.

## 1. BATZAR OROKORRA

### 7. artikulua. Definizioa eta ahalmenak.

Batzar orokorra da elkartearen organo burujabea eta borondatearen adierazlea; bazkide guztiek osatzen dute, eta erabakiak hartzen ditu gehiengoz eta barne demokraziaren irizpidearen arabera.

Batzar orokorraren ahalmenak dira:

- a) Elkartearen jardura-plan orokorra onartzea.
- b) Prestazioen araudia onartu eta aldatzea.
- c) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- d) Zuzendaritza batzordearen kudeaketa onartzea.
- e) Estatutuak aldatzea.
- f) Elkarte desegitea.
- g) Lehendakartzaren, idazkaritzaren ea diruzaintzaren ardura hartzen duten bazkideak eta, hala egokitzen bada, organo kolegiatuaren gainerako kideak hautatu eta kargu gabetzea, eta haien jarduna gainbegiratu eta kontrolatzea.
- h) Beste elkarte batzuekin batera federazioak edo konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- i) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, batzar orokorrak aginte-organuari eskuordetu diezairoke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Zuzendaritza batzordearen edo batzar orokorraren aurrean bazkideek aurkezten dituzten errekurtsoen berri izatea.
- m) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

### 8. artikulua. Bilkuren izaera.

Batzar orokorrak ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak egingo ditu.

### 9. artikulua. Ohiko batzar orokorra.

Batzar orokorrak gutxienez urtean behin, bigarren seihilekoaren barruan, egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartzeko.

### 10. artikulua. Ezohiko batzar orokorra.

Batzar orokorra zuzendaritza batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen % 20 batek eskatu dutelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolana ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkarte desegiteko.

## PRESTAGI

Prestazio Ekonomikoen Elkarteak  
Asociación de Prestaciones Económicas

Eguneko aztergaien zerrendan gai bat sartzeko aski izango da bazkideen % 10ek hala eskatzea.

### 11. artikulua. Deialdiak eta quoruma.

Batzar orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, elkartearen egoitzako iragarki taulan erakutsita, eta bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

### 12. artikulua. Gehiengoak eratzea.

Batzar orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Nolanahi ere, bertaratutako edo ordeztutako bazkideen gehiengo kualifikatu bat beharko da, hau da, balioz emandako botoen erdia gehi bat, erabaki hauek hartzeko:

- a) Elkarte desegitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.

### 13. artikulua. Ordezpena.

Bazkideek edozein bazkideren utzi dezaketen beren ordezkaritza, batzar orokorrera joateari dagokionez. Ordezkaritza inoren esku uztea idatziz egin beharko da, eta idazkia, bilera hasi baino 24 ordu lehenago helarazi beharko zaio batzarreko idazkariari. Elkartearen egoitza dagoen herrian bizi ez diren bazkideek, eta erretiratuta dauden bazkideek, ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

## 2. ZUZENDARITZA-BATZORDEA

### 14. artikulua. Gobernu organoa eta osaera.

1. Zuzendaritza batzordeari dagokio, gobernu organoa den heinean, elkartearen zuzendaritza, ordezpena eta kudeaketa arrunta, batzar orokorrak emandako irizpideen eta xedapenen barruan. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza batzordea osatuko dutenak izango dira:

- a) Lehendakaria.
- b) Lehendakariordea.
- c) Idazkaria.
- d) Diruzaina.
- e) Bost bokal.



2. Zuzendaritza batzordea hiru hilean behin bildu beharko da, eta elkartearen jardunbideak hala eskatzen duenean edo lehendakariak deia egiten duenean.

3. Zuzendaritza batzordearen bileretara bazkide ez direnak ere joan daitezke, elkartearen helburuetan lagungarri badira, ahotsaz baina botorik gabe.

**15. artikulua. Bileretara bertaratzea.**

Zuzendaritza batzordeko kideren bat bilera horietara bi aldiz jarraian, edo tarteka hiru aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arazoitzen.

**16. artikulua. Karguak hautatzea eta iraupena.**

Batzar orokorrak hautatuko ditu zuzendaritza batzordeko kargudunak. Kargu horiek lau urterako izendatuko dira, batzordeak berariaz baliogabetu ezean, eta bi urtez behin lau kide berrituko dira. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

Dena dela, batzordeko kideek kargua utziko dute izendatuak izan ziren izatasuna galtzen dutenean edo hautatu zituztenen konfiantza galtzen dutenean.

**17. artikulua. Kide izateko baldintzak.**

Zuzendaritza batzordeko kide izateko, nahitaezko baldintza dira:

- Elkarteko bazkide izatea.
- Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.

**18. artikulua. Jabetza hartzea.**

Zuzendaritza batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du, eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

**19. artikulua. Kargua uztea.**

Zuzendaritza batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- Aginte aldia bukatzen denean.
- Dimititzen dutenean.
- Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun arrazoiak dituztenean.
- Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, batzar orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- Hiltzen direnean.

Aurreko a) paragrafoan agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoiak, zuzendaritza batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte.

## PRESTAGI

Prestazio Ekonomikoen Elkartea  
Asociación de Prestaciones Económicas

Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak. b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoia, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du zuzendaritza batzordeak, eta batzar orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.

Organo honen osieran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

### 20. artikulua. Zuzendaritza batzordearen zereginak.

Zuzendaritza batzordearen zereginak dira:

- Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, batzar orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- Elkarteari gauzatu beharreko ekintzen egitaraua egitea.
- Gastu eta sarreraren arteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria batzar orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- Batzar orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.
- Batzar orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

### 21. artikulua. Zuzendaritza batzordearen bilkurak.

Zuzendaritza batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru lehendakaria izango da, ez balego, lehendakariordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon behar du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

## 3. PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

### 22. artikulua. Lehendakaria.

Lehendakariak beregain hartuko du elkartearen legezko ordezkariak, eta zuzendaritza batzordeak eta batzar orokorrak hartutako erabakiak gauzatu ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako lehendakaria izango da.

**23. artikulua. Lehendakariaren ahalmenak.**

Lehendakariak ahalmen hauek izango du:

- a) Zuzendaritza batzordearen eta batzar orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta botoberdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa zuzendaritza batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran zuzendaritza batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

**24. artikulua. Lehendakariordea.**

Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio, eta lehendakariak aldi batean bere kargua bete ezin badu, lehendakariordeak ordezkatuko du. Era berean, lehendakariak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

**25. artikulua. Idazkaria.**

Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta bazkideen erregistro liburuaren zaintzea, eta akta liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, elkartearen agiri ofizialak zainduz, elkarteko liburuaren eta artxiboen edukia egiaztatuz eta zuzendaritza batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketan berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

**26. artikulua. Diruzaina.**

Diruzainaren zereginak izango dira diru baliabideak zaintzea, eta Elkarteen Legeak nahiz elkarteen esparruan aplikagarri diren gainerako arauak ezartzen dituzten aurrekontu betekizunez arduratzea. Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak zuzendaritza batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek batzar orokorrari, hark onartu ditzan.





### III. KAPITULUA

#### BAZKIDEAK

##### 27. artikulua. Bazkide izaera.

1. Elkartearen bazkide izan daitezke, hala nahi badute, Gipuzkoako Lurralde Historikoko sektore publiko forala osatzen duten erakundeen enplegatu direnak, baita Gipuzkoako Batzar Nagusien enplegatu direnak.

Halako enplegatutzat hartuko dira, administrazioarekiko lotura eta zereginak direnak direlakoak izanda ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu finkatuko I. kapitulutik lansariak jasotzen dituztenak. Bazkide izan daitezke kargu politiko, zuzendaritzako edo konfiantzazkoetan direnak, hautagarri edo izendapen librekoak badira, halakoetan diren bitartean.

2. Eszedentzian diren pertsonen bazkideza eten egingo da lanpostura itzultzen diren arte.

3. Bazkide izan daitezke, baita ere, erretiratutako foru enplegatuak eta biziraupen pentsioak jasotzen dituztenak, enplegatuaren erretiroa edo heriotza gertatu zenean elkarteko bazkide baldin bazen, gutxienik 9 hilabete jarraituko antzinasunaz, edo foru administrazioa sartu zenez geroztik, baita ere jarraian, nahiz, heriotzaren kasuan, epe hori osatzera ez iritsi.

4. Enplegatu izaera asimilatua gordeko du, elkarteko bazkide izanda, beste erakunde publikoren batera zerbitzuak ematera doan enplegatuak.

5. Onuradunak izango dira enplegatuarekin batera bizi diren 30 urtetik beherako seme-alaba langabezian daudenak; 30 urtetik gorakoak, % 65eko edo goragoko ezgaitasun aitortu bat baldin badute; eta larritzat jotzen den endekapenezko gaitz bat dutenak, prestaziorik batera jasotzen ez badute.

6. Zuzendaritza batzordeak prestazioak ukatzeko ahalmena izango du, bazkideen senitartekoak izanda ere, aurreko puntuan azaldutako baldintza betetzen ez badira.


##### 28. artikulua. Sarrera baldintzak.

1. Aurkakorik berariaz eskatzen ez bada, bazkide izango dira egoera aktiboan dauden enplegatuak, baita erretiratutakoak eta pentsiodunak, estatutu hauek onartzen diren egunean lansarien % 0,5eko ekarpena egiten ari badira.

2. Era berean, bazkide izan daitezke egoera aktiboan dauden enplegatuak, baita erretiratutakoak eta pentsiodunak, 27. artikuluan xedatutako baldintza betetzen badituzte eta, estatutu hauek onartzen diren egunean lansarien % 0,5eko ekarpena ez egin arren, hala eskatzen badute.

3. Bazkide izan daitezke, baita ere, estatutu hauek onartu ondoren sartzen diren enplegatuak, 27. artikuluan xedatutako baldintza betetzen badituzte eta hala eskatzen badute.





4. Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, lehendakariari zuzenduta. Lehendakariak eskaeraren berri emango dio zuzendaritza batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea onartu ala ez.

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN  
PÚBLICA Y JUSTICIA  
Registro de Asociaciones

## BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

### 30. artikulua. Bazkideen eskubideak.

Bazkide guztiek eskubide hauek dituzte:

- Ezartzen diren prestazioak jasotzea, beretzat edo onuradunentzat.
- Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak aurkaratzea, aurkaratutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
- Elkartearen gobernu eta ordezkaritza organoen osaerari, elkartearen kontu egoerari eta elkartearen jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
- Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru sarreraren eta gastu kontuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan jakitea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- Elkartearen estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza organoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
- Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- Estatutuen eta, egonez gero, barne araudiaren ale baina edukitzea, eta zuzendaritza organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiari buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

### 31. artikulua. Bazkideen betebeharrak.

Bazkideen betebeharrak dira:

- Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- Kuotak eta estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- Estatutuetatik eta lege arauetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- Elkarteko zuzendaritza organoek baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

## PRESTAGI

Prestazio Ekonomikoen Elkartea  
Asociación de Prestaciones Económicas

### 32. artikulua. Bazkide izateari uztea.

#### 1. Bazkide izateari uzteko arrazoiak dira:

- Bazkidearen heriotza; kasu horretan, hala eskatuta, biziraupen pentsioa jasotzen duten pertsonak izango dira bazkide.
- Bazkidea bere borondatez joatea, idatziz eskatzen duen egunetik aurrera izango duena indarra, zuzendaritza batzordeak besterik erabakitzen ez badu, betebeharrak amaitu gabe badira.
- Arrazoi hauengatik, bazkide izateari uzteko zigorra jasotzea: Estatutuetatik eratorritako betebeharrak eta batzar orokorrak edo zuzendaritza batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.

2. Bazkideak bere borondatez uzten duenean elkartea, berriro itzultzea behin bakarrik onartuko zaio. Zigor baten eraginez uztera behartuta dagoenean, ez zaio itzultzea onartuko.

## IV. KAPITULUA

### ZIGOR ARAUAK

### 33. artikulua. Hutsegiteak.

#### 1. Bazkideek hutsegite arinak edo larriak egin ditzakete.

##### 1.1. Hutsegite arinak izango dira:

- Ez ematea elkarteari bere egoeraren edo onuradunen egoeraren aldaketaren berri, jaso ditzaketen prestazioetan eraginik badu.
- Ez ordaintzea garaiz ohiko kuotak.
- Hutsegite larri izan gabe, elkartearen jarduerari kalte egiten dion edozein jokabide edo jarrera.

##### 1.2. Hutsegite larriak izango dira:


- Elkartearen prestazioak edo gastuak sorrarazten dituzten egoerak antzeztu, eragin edo larritzea. nahita eta fede txarrez.
- Elkartearen interesen aurkako iruzurra egitea edozer modutan.
- Estatutuak, edo batzar orokorrak nahiz zuzendaritza batzordeak hartutako erabakiak urratzea.
- Ez ordaintzea garaiz bi ohiko kuota baino gehiago.

### 34. artikulua. Zigorrak.

1. Aurreko artikuluan zehaztutako hutsegiteen ondorioz, zigor hauek ezarri ahal izango dira:

##### 1.1. Hutsegite arinen ondorioz:

- Ohartarazpen idatzia edo ahozkoa.
- Bazkidetza etetea hilabete batez edo biz.



**1.2. Hutsegite larrien ondorioz:**

- a) Bazkidetza etetea hiru hilabetetik sei hilabetera.
- b) Bazkide izateari uztea.

**2. Nolanahi ere, zigorra ezartzearekin batera, oker jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra izango da.**

**35. artikulua. Prozedura eta errekurtsok.**

1. Zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak. Ikerketaren instruktorea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio zuzendaritza batzordeari hartu beharreko neurriak.

2. Hutsegiteen espedientea dokumentu guztiekin osatuko da, bi aletan, eta horietako bat elkartearen artxiboan geldituko da jasota, bazkidearen espedienteari lotua.

3. Zigorra ezartzeko ahalmena zuzendaritza batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instruktorea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsoa jarri ahalko zaio batzar orokorrari, erabakiaren jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

4. Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta batzar orokorrak edo zuzendaritza batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaiotke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

5. Elkartetik kanporatzeko zigor espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, zuzendaritza batzordearen lehenengo bilkurako gaien zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espedienteko instruktorea izan den idazkariak.

6. Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsoa aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzarrik egiten ez bada, batzar bat egin beharko da horretarako bakarrik. Bitartean, zuzendaritza batzordeak inputatuari bazkide eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta zuzendaritza batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

7. Batzar orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, zuzendaritza batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza batzar orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

## PRESTAGI

Prestazio Ekonomikoen Elkarteak  
Asociación de Prestaciones Económicas

8. Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegiara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo estatutuen aurkakoa bada.

9. Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

### 36. artikulua. Baliogabetzea.

Hutsegite arinak sei hilabeteren buruan baliogabetuko dira, eta hutsegite larriak hamabi hilabeteren buruan.

### 37. artikulua. Egikaritzea.

Zigor guztiek eragina izango dute indarra hartzen duten unetik aurrera.

## V. KAPITULUA

### ONDAREA ETA AURREKONTU ARAUAK

### 38. artikulua. Ondarea.

Elkartearen ondarea da Estatutu hauek onartzen diren unean Kutxabank erakundearen beraren izenean dagoen kontu korrontearen saldoa, eragindako gastuak eta jaso beharreko kuota albo batera utzita.

Estatutu hauek onartu diren unean ondare hori 293.304,94eurotara iristen da.

### 39. artikulua. Baliabide ekonomikoak.

1. Elkarteak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru baliabide hauek aurreikusten ditu:
  - a) Erabakitzen diren aldizkako kuota.
  - b) Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta lege jasotzen dituen diru laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
  - c) Zuzendaritza batzordeak estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jardueretatik datozen diru sarrerak.

2. Urtealdi bakoitzean ordaindu beharreko kuota batzar orokorrak onartuko ditu, zuzendaritza batzordearen proposamenez, II. kapituluan xedatutakoaren arabera.

3. Bazkideek ordaindu beharreko kuota izango da ordainsarien portzentaje jakin bat, bai langileentzat, bai erretiratutakoentzat.

### 40. artikulua. Elkartearen ekitaldia.

1. Elkartearen ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.



- d) Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
- e) Epaia irmo batek elkarteak desegitea agintzen duelako.
- f) Elkartearen helburuak betetzera ezinezkoa delako.

#### 43. artikulua. Likidazioa

Elkartea deseginez gero, desegiteko erabakia hartu duen ezohiko batzar orokorrak kitapen batzorde bat izendatuko du, behar diren izapideez eta dagoen diruz arduratuko dena.

Kitapen batzorde hori osatuko dute bazkideen artean hautatutako hiru kidek, zuzendaritza batzordeko bi kidek eta lehendakariak, eta bertan izango dira, baita ere, idazkaria eta diruzaina.

Kitapen batzordeak onartu eta gauzatuko ditu likidazio arauak, egin bidean diren eragiketak amaituko ditu, eta behar diren eragiketa berriak burutuko ditu, likidazioarekin zuzenean edo zeharka loturik dauden kasuetan.

#### 44. artikulua. Ondarea banatzea.

Bazkideekiko betebeharrak sozialak eta hirugarrenen aurrean diren betekizunak ordaindu ostean, gelditzen den ondarea —ezer gelditzekotan— bazkideen artean hainbanatuko da, batzar orokorrak erabakitzen duen moduan.

### XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehena.** Batzar orokor arruntak aldatzen ez duen bitartean, elkartearen prestazioak izango dira eranskinean ageri direnak.

**Bigarrena.** Estatutu hauek onartzen diren unean kargu politiko, zuzendaritzako edo konfiantzazkoetan diren bazkideak, hautagarri edo izendapen librekoak badira, bazkide izaten jarraituko dira, izaera hori betetzen duten bitartean.

### AMAIERAKO XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, batzar orokorrak barne araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu estatutuetako aginduak aldatuko.

AS/6/18918/2014

Estatutu hauek ikus-onetsi dira, Euskal Autonomiarik Erkidegoko Elkartearen Erroldal Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuan eta horrekin bal datozen gainontzeko arauetan zehaztutako ondorioetarako.

2015 AZA. 19  
NOV. 19

Visados los presentes Estatutos, a los efectos determinados en el Decreto 145/2008, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco y demás normativa concordante.

ELKARTEEN ERREGISTRADA / REGISTRO DE ASOCIACIONES

HELRU ADIBERRAZIO

DEPARTAMENTO DE ASOCIACIONES ECONÓMICAS Y EMPRESARIALES

Registro de Asociaciones Económicas